

HAZI FUNDAZIOA

Sozietatearen izena

Hazi Fundazioa

IFK

G48986137

Izaera

Sektore publikoko fundazioa.

Kontabilitate-arabidea

Pribatua.

Aurrekontu-arabidea

Partida murriztaileak dituen balioespena.

Sorrera

Fundazioa Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza eta Elikadura Sailak eratu zuen (egungo Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak), Fundación Kalitatea Fundazioa izenarekin, 1998ko abuztuaren 6an emandako eskritura publiko bidez, eta honako hau oinarri hartuta inskribatu zen Fundazioen Erregistroan: [AGINDUA, 1999ko uztailaren 20koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuarena, «Fundación Kalitatea Fundazioa» delakoa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen duena.](#)

Geroago, 2011ko abenduaren 28an, fundazioaren Patronatuak estatutuetako zenbait artikulua aldatzea erabaki zuen; besteak beste, fundazioaren izena bera aldatu zuten, eta Fundación Hazi Fundazioa izena hartu zuen. Aldaketa horiek agindu honek onartu zituen: [AGINDUA, 2012ko urtarrilaren 17koa, Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuarena, Fundación Hazi Fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa onetsi eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.](#)

Sail-atxikipena

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna

JESN

7320 Merkatu azterlanak eta iritzi publikoari buruzko inkestak egitea.

Fundazioaren xedea eta helburua

Fundazioaren Patronatua 2012ko ekainaren 14an bilduta, fundazioaren estatutuen artikulua batzuk aldatzea onartu zuten, besteak beste, erakundearen sorrerako xedea eta helburua, hori guztia Hazi Landa eta Itsas Ingurunearen Garapenerako Korporazioa, S.A. eta Hazi Kontsultoria, S.A. erakundeen jardura jakin batzuk fundazioan bertan txertatzeko asmoaren barruan. Aldaketa horiek agindu honek onartu zituen: [AGINDUA, 2012ko uztailaren 19koa, Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuarena, Fundación Hazi fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa onesteko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.](#)

Aldaketa horren ondoren, fundazioak bere jardun-esparruan lehiakortasuna, jasangarritasuna eta berrikuntza bultzatzea eta sustatzea du xede eta helburu. Jardun-esparru horrek lehen sektorea (nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta basogintza), landa-ingurunea, itsasertz-ingurunea eta elikagaien industria hartzen ditu. Horien balioa areagotu nahi da xede eta helburu horiek betez, eta natura- eta kultura-ondarea zaindu.

